**EBAZPENA, 2020ko martxoak 06(e)koa, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAKUNTZAren Estatutuetan aldaketak EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen dituena**

2020ko otsailak 13an Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzan sarrera izan du Gipuzkoako Foru Aldundiaren otsailaren 6ko 40-013/2019 Foru Agindua. Agindu horrek, Kirol Erakundeen Erregistroan 1986ko apirilak 29(e)an 92 zenbakiarekin inskribatuta dagoen **GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAKUNTZAren ESTATUTUEN ALDAKETAK** onartzen ditu.

Ekainaren 11ko 14/1998 Euskadiko Kirol Legearen 41. artikuluak, estatutu eta araudien aldaketa eta onarpena Kirol Erakundeen Erregistroan jaso beharreko egintzak bezala jasotzen ditu.

Gipuzkoa Foru Aldundiak igorritako dokumentazioa ikusita, eta indarrean dagoen legediak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen direla kontuan izanik,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Gipuzkoako FORU ALDUNDIAREN otsailaren 6ko 40-013/2019 Foru Aginduren bidez onartutako **GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAKUNTZAREN ESTATUTUAK** Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea.

Bigarrena.- Legez ezarritako epean jakinaraztea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea ez du amaitzen eta, bere aurka, pertsona interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den hurrengo egunetik aurrera.

**RESOLUCIÓN de 06 de marzo de 2020, del Director de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco por la que se inscribe en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco la modificación de los Estatutos de la FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL**

Con fecha 13 de febrero de 2020 ha tenido entrada en la Dirección de Actividad física y Deporte del Gobierno Vasco la Orden Foral 40-013/2019 de 6 de febrero de la Diputación Foral de Gipuzkoa por la que se aprueba la modificación de los **ESTATUTOS de la FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL**, inscrita en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco el 29 de abril de 1986 con el número 92.

El artículo 41 de la Ley 14/1998, de once de junio, del Deporte de Euskadi, determina que serán objeto de inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco, entre otros, la aprobación y modificación de estatutos y reglamentos.

A la vista de la documentación remitida por la Diputación Foral de Gipuzkoa y dado se cumplen todos los requisitos exigidos por la normativa vigente,

**RESUELVO**

Primero.- Inscribir en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco los **ESTATUTOS de la FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL**, aprobados por la Orden Foral 40-013/2019 de 6 de febrero de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Segundo.- Notifíquese en el plazo legal establecido.

Tercero Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, las personas interesadas podrán interponer Recurso de Alzada ante el Consejero de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Jon Redondo Lertxundi**
**JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARIA**

Nahi izanez gero, J0D0Z-T208K-X4QQ bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.eus/lokalizatzailea

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T208K-X4QQ en la sede electronica http://euskadi.eus/localizador

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko otsailaren 13a, osteguna — 29 — Jueves, a 13 de febrero de 2020

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*40-013/2019 Foru Agindua, otsailaren 6koa, Gipuzkoako Futbol Federazioaren estatutuen aldaketa onesten duena.*

Departamentuko foru diputatuak honako foru agindu hau eman du gaur:

Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak, ekainaren 11koak, 5 h) artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde historikoetako foru organoei dagokie, zeini bere lurralde esparruan, lurraldeko kirol federazioak onestea, laguntzea, finantzatzea, ikuskatzea eta kontrolatzea beren egiteko publikoak bete ditzatela bermatzeko, beren jarduera pribatuaren kalterik gabe.

´lde horretatik, 25.1 h) artikuluan xedatutakoaren arabera, kirol federazioek, eskuordez, burutzen duten administrazio-egiteko publikoetako bat da bere estatutuak eta araudiak onartzea, eta egiteko hori, ikusi dugunez, eskumena duen tutoretza ´dministrazioak kontrolatzen du. Kontrol hori, besteak beste, gauzatzen da administrazioak dagokion onespena emanez federazioen estatutuei eta araudiei, aipatutako 14/1998 Legeak, ekainaren 11koak, 29.2 artikuluan jasotzen duen moduan: «Lurralde-federazioen estatutuak, bai eta estatutuotan izan litezkeen aldaketak ere, dagokion lurralde historikoko ´ldizkari Ofizialean argitaratuko dira dagokion administrazioak onartu eta gero».

2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak, Euskal Herriko kirol federazioei buruzkoak, gai horren inguruan aipatutako 14/1998 Legea garatzen duenak, berriz ere azpimarratzen du federazioen estatutuen onespenaren gaia. Horrela, bada, xedapen arauemailearen 65. artikuluak, «Estatutuen administrazio onarpena, argitalpena eta indarraldia» izenekoak, lurralde federazioen estatutuetako arauei dagokienez, ondorengoa xedatzen du, beste gai batzuen artean:

«6. Lurralde federazioen estatutuak nahiz horien aldaketak dagokion Lurralde Historikoko ´ldizkari Ofizialean argitaratuko dira, behin administrazioaren aldetik onartu direnean.

7. Federazio estatutuak indarrean sartzeko, onartu egin beharko dira, eta dagokion aldizkari ofizialean osorik argitaratu beharko dira. Estatutu horiek argitaratu eta hurrengo egunetik egongo dira indarrean, bai federatuentzat, bai hirugarren pertsona eta erakundeentzat».

Bestetik, 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 dekretu horretako 70.1 artikuluak honakoa xedatzen du: «Estatutuak onartu eta aldatu ahal izateko, beharrezkoa da horretarako deitutako Batzar Nagusira bertaratzen diren kideen bi herenek horren aldeko botoa ematea».

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, COOPERACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES

*Orden Foral 40-013/2019, de 6 de febrero, por la que se aprueba la modificación estatutaria de la Federación Guipuzcoana de Fútbol.*

El diputado foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

El artículo 5 h) de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del deporte del País Vasco, establece que corresponde a los órganos forales de los territorios históricos, en su respectivo ámbito territorial la competencia de aprobación de las federaciones deportivas territoriales, así como su asistencia, financiación, intervención y control para garantizar el cumplimiento de sus funciones públicas, sin menoscabo de su actividad privada.

En este sentido, el artículo 25.1 h) del mencionado texto legal dispone que una de las funciones públicas de carácter administrativo que ejercen, por delegación, las federaciones deportivas es la aprobación de sus estatutos y reglamentos, función que, según hemos visto, está sometida al control de la ´dministración de tutela competente. Este control se manifiesta, entre otros modos, mediante la preceptiva aprobación administrativa de los estatutos y reglamentos federativos, tal como recoge el artículo 29.2 de la ya citada Ley 14/1998, de 11 de junio, cuando señala que: «los estatutos de las federaciones territoriales, así como sus modificaciones, se publicarán, una vez aprobados administrativamente, en el Boletín Oficial del correspondiente territorio histórico».

El Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las federaciones deportivas del País Vasco, que desarrolla en esta materia la Ley 14/1998, de 11 de junio, abunda, como no podía ser de otra manera, en la cuestión de la aprobación de los estatutos federativos. ´sí, el artículo 65 de la disposición reglamentaria, titulado «´probación administrativa, publicación y vigencia de los estatutos», en lo que se refiere a las normas estatutarias de las federaciones territoriales establece, entre otras cuestiones, lo siguiente:

«6. Los estatutos de las federaciones territoriales, así como sus modificaciones, se publicarán, una vez aprobados administrativamente, en el Boletín Oficial del correspondiente Territorio Histórico.

7. La vigencia de los estatutos federativos estará vinculada a su aprobación y posterior publicación íntegra en el boletín oficial correspondiente. Dichos estatutos producirán efectos desde el día siguiente al de dicha publicación tanto para las y los federados como para las terceras personas y entidades».

Por su parte, el artículo 70.1 de ese mismo Decreto 16/2006, de 31 de enero, dispone que «Para la aprobación y modificación de los estatutos será preciso el voto favorable de los 2/3 de los asistentes a la asamblea general convocada al efecto».

Nahi izanez gero, J0D0Z-T208K-Y03F bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.eus/lokalizatzailea

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T208K-Y03F en la sede electronica http://euskadi.eus/localizador

´urreko agindu horiek betez, 86/2007 Foru ´ginduak, maiatzaren 25ekoak, onetsitako estatutuen 34.4. eta 39.2 artikuluen aldaketa aurkeztu du Gipuzkoako Futbol Federazioak Gipuzkoako Foru ´ldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuan, administrazio onespena eman diezaion. Estatutuen aldaketa horiek onartu zituzten beharrezko gehiengoarekin, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Batzarreko parte hartzaileek 2018ko ekainaren 29an.

Kiroleko Zuzendaritza Nagusiko teknikariek, aldatutako artikuluaren testua aztertu ondoren, erabaki dute ez duela indarrean dagoen kirol federazioei buruzko araudia urratzen eta, administrazio onespena ematea proposatu dute.

Horregatik guztiagatik, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak

EB´ZTEN DU

*Lehenengo.* Onestea Gipuzkoako Futbol Federazioaren estatutuen 34.4 eta 39.2 artikuluen aldaketa, 2018ko ekainaren 29ko ezohiko Batzar Nagusian onartutakoa. Honela geratuko da idatzita artikulu horien testu berria:

34.4 artikulua.

«Lehendakaria berriro aukeratu ahal izango da, baina gehienez ere sei agintaldi bete ahal izango ditu jarraian».

39.2 artikulua.

«Zuzendaritza Batzordeko kideak berrautatu ahal izango dira, baina gehienez ere sei agintaldi bete ahal izango dituzte, kontuan hartuta Zuzendaritza Batzordean izan dituzten zuzendaritza kargu guztiak».

*Bigarren.* ´gintzea estatutuen aldaketa hori Gipuzkoako ´LDIZK´RI OFIZI´LE´N argitara dadin.

*Hirugarren.* Foru agindu honen kopia bat bidaltzea Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzara, Euskal Herriko Kirol Entitateen Erregistroan inskribatzeko.

*Laugarren.* Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete ´dministrazioarekiko ´uzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

´ditzera ematen da, denak jakinaren gainean egon daitezen.

Donostia, 2020ko otsailaren 6a.—Ignacio Sainz Paredes, idazkari teknikoa. (818)

En cumplimiento de los preceptos citados, la Federación Guipuzcoana de Fútbol ha presentado, para su aprobación administrativa ante este Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la modificación de los artículos 34.4 y 39.2 de sus estatutos, que fueron aprobados por Orden Foral 86/2007, de 25 de mayo. La modificación estatutaria ha sido aprobada con la mayoría exigida, por la ´samblea de la Federación Guipuzcoana de Fútbol, reunida en sesión de 29 de junio de 2018.

´nalizado el texto del artículo modificado por los técnicos adscritos a la Dirección General de Deporte, han considerado que no infringe la vigente normativa sobre federaciones deportivas y han propuesto su aprobación administrativa.

En su virtud, el diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes,

RESUELVE

*Primero.* ´probar la modificación de los artículos 34.4 y 39.2 de los estatutos de la Federación Guipuzcoana de Futbol, aprobada por su ´samblea General extraordinaria en sesión de fecha 29 de junio de 2018. Los textos de dichos artículos quedarán redactados del modo siguiente:

´rtículo 34.4.

«El Presidente podrá ser reelegido, pero el límite temporal de mandatos será de seis consecutivos».

´rtículo 39.2.

«Los miembros de la Junta Directiva, podrán ser reelegidos, pero el número máximo de mandatos que podrán ostentar será de seis, computándose todos los cargos directivos que hayan ostentado en la Junta Directiva».

*Segundo.* Ordenar la publicación de esta modificación estatutaria en el BOLETÍN OFICI´L de Gipuzkoa.

*Tercero.* Remitir una copia de la presente orden foral a la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco, a los efectos de su inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

*Cuarto.* La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra la misma recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-´dministrativo de Donostia - San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta diputada foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

San Sebastián, a 6 de febrero de 2020.—El secretario técnico, Ignacio Sainz Paredes. (818)